



# Nafarroako Erdialdea: Erriberri eta eskualdea



-  **Turismo Bulegoa:**  
**Erriberri**  
Teobaldosen Enparantza 10  
(+34) 948 741 703  
oit.olite@navarra.es
-  Turismo Informaziorako Gunea (urte osoan irekita)
-  Turismo Informaziorako Gunea (denboraldian irekita)
-  Zer ikusi
-  Donejakue Bidea
-  Irati trenaren bide berdea
-  Museoa - Interpretazio zentroa
-  Arroila
-  Bainurako eremua
-  Behatokia
-  Abentura-parkea
-  BTT gunea
-  Bidexkak
-  Bidexka familiarentzat
-  Aparkaleku arautua
-  Kargatu auto elektrikoa
-  Sotoa



Reyno de **Navarra**  **Nafarroako** Erresuma

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua 


[www.visitnavarra.es](http://www.visitnavarra.es)

 @visitnavarra.es



# Erriberri eta inguruak

Erdi Aroan, hainbat herrik garrantzi handia izan dute Nafarroako Erreinu zaharraren historian, eta Erdi Aroko aztarna gorde dute. Tartean dira hiribilduak, herriak eta defentsa xedez eraikitako lekuak, gotorlekuak, eliza erromaniko eta gotiko sendoak, jauregiak eta armarridun etxeak.



Artaxona



Pitillas, aintzira



Olivako monasterioa



Uxue



Gares



Erreniega Mendia

## Orbaibar

Iruñearen eta Tafallaren artean dago Orbaibar. Landatar erromanikoaren altxor baliotsuak ditu, erlijiozkoak zein zibilak.

- 16. **Oloritz:** Etxanoko San Pedro ad Vincula basiliza.
- 17. **Orisoain:** Tourseko San Martin eliza eta kriptia erromanikoa, "Aspaldiko bizipenak" ekomuseoa.
- 18. **Garinoain:** Katalaingo Santo Kristoren ermita.
- 19. **Iratxeta:** garaia.
- 20. **Olleta:** Jasokundearen eliza.



Iratxeta



Garinoain

## Zer ikusi

- 1. **Tafalla:** Andre Maria eta San Pedro elizak eta Los Mencos jauregia.
- 2. **Erriberri:** Errege-erreginen jauregia, Jauregi zaharra (Paradore Nazionala), Andre Mariaren errege eliza, Txapitel dorrea, San Pedro eliza, Enozentrum Olite/Erriberri.
- 3. **San Martin Unx:** Erdi Aroko herria, Toursko San Martin eliza eta kriptia erromanikoa, Andre Maria Popolokoaren eliza.
- 4. **Uxue:** Erdi Aroko herria, Espainiako Herri politenen zerrendan dagoena. Andre Maria gotorleku-eliza.
- 5. **Pitillas:** Hegaztien behatokia eta aintzira.
- 6. **Santakara:** Karako aztarnategi erromatarra.
- 7. **Zarrakaztelu:** Olivako Andre Maria Erreginaren monasterioa.
- 8. **Arrada:** Arradako harresi-barrua
- 9. **Artaxoa:** harresi-esparrua, San Saturnino eliza gotorlekua, "Enerizko Ataka" eta "Ferrangorteko mea" trikuharria.
- 10. **Berbintzana:** Las Eretas Burdin Aroko museoa eta aztarnategi arkeologikoa.
- 11. **Mendigorria:** Andelosko erromatar museo eta aztarnategi arkeologikoa.

- 12. **Olkotz:** Olkozko Erdi Aroko dorrea.
- 13. **Muruzabal:** Church octogonal of Santa María de Eunate.
- 14. **Gares:** Erdi Aroko hiri xakobeoa, Gurutzearen eta Done Jakueren elizak eta zubi erromanikoa.
- 15. **Erreniega Mendia:** Donejakue Bidearen monumentua.

## Festak eta tradizioak

- Uxueko erromeria,** apirilaren 25aren ondoko igandeetan.
- Ardo gorriaren eguna** San Martin Unxen, ekainean.
- Andelos Erromatar Jaialdia,** ekaina.
- Artaxoako historiari buruzko topaketak,** uztaila. Nafarroako Interes Turistikoko Festa.
- Erriberriko Antzerki Jaialdia,** uztailako bigarren hamabostaldia.
- Tafallako jaiak,** abuztuaren 14tik 20ra.
- Erdi Aroko jaiak** Erriberrin, abuztua.
- Mahats-bilketaren festa** Erriberrin. Iraila.
- Tafallako feriak** otsailean eta urrian.



Artaxoako historiari buruzko topaketak



Erdi Aroko jaiak

## Gastronomia



Artzain-apurrak

Erriberri, Nafarroako ardoaren hiriburu-tzat jotzen dena, Kontseilu Arautzailearen, Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Gunearen (EVENA) eta Ardoaren Kofradiaren egoitza da.

Erriberri inguruko ardoek ospe ona dute. Zuriak, gorriak, ardo beltz gazteak, ardo onduak, erreserbak, erreserba handiak eta moskatelak ere oso ezagunak dira, guztiak ere Nafarroako Jatorri Deiturari atxikiak. Eskualde hori **Nafarroako Ardoaren Ibilbidearen parte da.**



Babarrun gorriak (*kalbote* esaten zaie), Uxueko artzain-apurrak eta inguruko perretxikoak eta onddoak probatu behar dituzu, baita Orbaibarko boilurra ere.

Erdialdeko lurrak oso emankorrak dira, halako moldez ze ezin baitira produktu guztiak freskotan kontsumitu. Hala, fruta eta barazki ugari lataratu edo poteratu behar izaten dira. Ez dituzte baina horregatik beren nutrizio-osagai aberatsak galtzen, esaterako Nafarroako zainzuriaren kasuan.

Ez ahantzi Uxueko almendra garrapiñatuak eta Tafallako pinazi karameluak probatzea.

## Web interesgarriak

- [www.rutadelvinodenavarra.com](http://www.rutadelvinodenavarra.com)
- [www.valdorba.org](http://www.valdorba.org)
- [www.navarramedia.es](http://www.navarramedia.es)
- [www.btt.navarramedia.es](http://www.btt.navarramedia.es)
- <https://apie.navarramedia.es/navarracaminoveracruz.org>

## Ezinbesteko bideak Nafarroan



## Erriberriko ordokia

